

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 90/2025, FORU DEKRETUA, urriaren 2koa, 2026an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko arautegia ezartzen duena.

Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailak bere helburuen artean dauka beren kirol ibilbideagatik edo kirol emaitzengatik, eta lehiaketetan goi-maila lortu ez arren, horretarako gaitasuna erakusten duten kirolariak identifikatu eta laguntzea.

Foru dekretu honen helburua da irizpideak ezartzea Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei aholkularitza eta babesa ematea, «kirolerako talentutzat» identifikatu orduko pausu modura.

Dekretu honen xedea da goi-mailako kirola egiteko aukera duten kirolariei antzema-tea eta laguntzea; horregatik, onuradun izan daitezkeen adinak zehazten dira, behe-ragoko adinak eskola-kategoriei dagozkielako eta adin handiagoko kirolariek proiektzioa izateko beharrezko lorpenak lortu behar zituztelako.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiari dagokion eskumena Bizkaiko Foru Aldun-diarena da, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoeta-ko Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b).6 artikulua arabera. Beronen arabera, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako arauak garatu eta betearazteko eskumena.

Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak, bere 2.3 artikuluan dio aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dutela, eta horretarako burutuko du-ten kirol politikak printzipio hauek izango dituela oinarrian, besteak beste: goi-mailako kirola antolatzea eta sustatzea kirol federazioen parte-hartzearekin.

Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren lege horren 4.f) artikulua ezartzen du lurralde historikoetako foru organoei dagokiela goi-mailako kirola iristeko aukerak dituzten etorkizun handiko kirolariei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Lege horrek, 95.2 artikuluan, honela definitzen ditu etorkizun handiko kirolariak: Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kirol-arloko eskumena duten sailak onartutako goi-mailako kirolarien zerrendan egon gabe ere, maila horretara iristeko oinarri-dun es-pektatibak dituzten kirolariak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren bidez one-tsitako Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko araudiak dio sai-lari dagokiela laguntza ematea kirolerako gaitasun nabarmena agertzen duten kirolariei.

Araudi hau izapidetzean, erregulazio onaren printzipioen arabera jarduten da, Bizkai-ko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua (prin-tzipio horiek, oro har, lantzen ditu). Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezin-bestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapau-soak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, foru dekretu honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bi-zitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako



Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Era berean, abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamenduak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari esleitzen dizkio dagozkion ahalmenak.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.— *2026an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programaren arautegia onestea*

2026an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programaren arautegia onesten da.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa.— *Ahalmena ematea erregelamendu bidez garatzeko*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.
2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

Azken Xedapenetako Bigarrena.— *Indarrean jartzea*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon 2025eko urriaren 2an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

**2026AN BIZKAIKO ETORKIZUN HANDIKO KIROLARIAK IDENTIFIKATZEKO
ETA KIROLARI HORIEI LAGUNTZA EMATEKO ARAUTEGIA****1. oinarria. — Xedea**

Foru dekretu honen xedea da 2026an Bizkaiko Etorkizun Handiko Kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programa arautzea.

2. oinarria. — Etorkizun Handiko Kirolariak identifikatzea

Kirolaren munduan proiektzioa duten Bizkaiko Lurralde Historikoko kirolariak detektatzeko eta 2026ko Programan sartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak kirol-merezimenduen ebaluazioa egingo du, eskatzaileek emandako dokumentazioaren eta datuen arabera, eta bi kirolari-kategoriaren zerrenda osatuko du, merezimendu horien arabera: Etorkizun Handiko Kirolariak eta Etorkizun Handiko Kirolaritzat jotzeko hautagaiak.

3. oinarria. — Baldintzak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak 2026ko Etorkizun Handiko Kirolari izaera edo Etorkizun Handiko Kirolaritzat jotzeko hautagai izaera aitortzea nahi duten kirolariek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) 2025. urterako edo 2025/2026 denboraldirako kasuan kasuko Euskadiko Federazioak luzatutako lizentzia izatea.
- b) 2002. eta 2010. urteen artean (biak barne) jaioak izatea.

2010. urteaz geroztik jaiotako kirolarien kasuan, proba olinpikoetan lehiatzen diren kirolariek baino ezin izango dute promesa-aitorpena jaso, betiere merezimenduak goragoko kadete kategorian edo goragoko batean lortzen badituzte. Horrez gain, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion federazioaren txostena aurkeztu beharko du kirolariak, bertan parte hartu izana justifikatzeko.

Federazio txosten hori ez da loteslea izango. Kirol Zerbitzuak proposatu dezaake txostena aurkeztu duten kirolariak ez sartzeko, beti ere zergatia arrazoitzen badu.

- c) Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea, etenik gabe, 2024ko urriaren 1etik aurrera.

2. 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era (egun biak barne), gutxienez 6. oinarrian datorren kirol merezimenduren bat lortu duten kirolarien eskabideak baino ez dira aztertuko.

Kirol merezimendu horiek dekretu honen 4.2.a) oinarriaren arabera aurkeztu den lizentziarekin lortuak izan beharko dute, eta lizentzia hori dagokion Euskadiko Federazioak luzatua izan behar du.

Hala ere, surfaren modalitatean, ondorio horietarako, Euskadiko Federazioak luzatutako lizentziarekin lortutako merezimenduez gain, Espainiako Surf Federazioaren lizentziarekin edo World Surf League lizentziarekin lortutakoak ere onartuko dira.

4. oinarria. — Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak 2026ko Etorkizun Handiko Kirolari izaera aitortzeko aurrez aurreko eskabideak eredu ofizialean (EK1 inprimakia) aurkeztu behar dira, behar bezala beteta. Eredua web-orri honetan eskura daiteke:

— <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuz gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira betetzeko eta egoitzan aurkezteko dauden eredu berezien araberrako eskabideak erabili beharko dira.

Kirolari adingabeen eskabideak aitak, amak edo legezko ordezkariak aurkeztuko ditu.

Kirolari bakoitzeko inprimaki bakarra bete beharko da.



2. Eskabideekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:
 - a) 2025. urteari edo 2025/2026 denboraldiari dagokion federazio lizentziaren kopia.
 - b) Kasuan kasuko kirol merezimenduak egiaztatze dokumentua, dagokion federazioak emana.
 - c) Kirolaria dekretu honen 3.1.b) oinarrian ezarritako urteak baino ondoren jaio bada: sar dadin behar bezala justifikatzen duen kasuan kasuko federazioaren txostena.
 - d) Legezko edo borondatezko ordezkarienez jardunez gero, ordezkari zuzenbidean baliozkoa den edozein frogabide erabiliz egiaztatzea.
3. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 8tik 31n bitartekoa izango da, egun bi horiek barne.

5. oinarria. — Dokumentazio egiaztagarria

Dauden datu-bitartekaritarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kirol Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, salbu eta berariaz aurka egiten badiote. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan errolatuta egotearen ziurtagiri historikoa, kirolariari buruzkoa, izango da datuen bitartekaritzaren xede.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kirol Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregela-menduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

6. oinarria. — Hautaketa-merezimenduak

3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileekin, kirolarien kategoria biko zerrenda bat osatuko da, haien kirol-merezimenduen arabera.

- A) Etorkizun Handiko Kirolariak.
 - B) Etorkizun Handiko Kirolaritzat jotzeko hautagaiak.
- Hauek dira hautaketa egiteko merezimenduak:

A) Etorkizun Handiko Kirolaritzat hartzeko

1. Nazioarteko kirol-lehiaketetan parte hartzea:

Kontuan hartuko da titulu ofiziala lehiatzen den nazioarteko lehiaketan parte hartzea, baldin eta partaidetza hori alde zuzeneko sailkapenaren mende badago, betiere Espainiako edo Euskadiko selekzioen ordezkari bada.

Aurreko paragrafoan ezarritako baldintzez gain, nazioarteko kirol-lehiaketetan gutxienez 5 herrialde edo estatutako ordezkariak parte hartu beharko dute.

Euskadiren ordezkaria izanez gero, kontuan hartuko diren lehiaketak Munduko edo Europako Txapelketak izango dira.

Lehiaketak nazioarteko federazio baten, Europako federazio baten edo nazioarteko liga profesional baten egutegi ofizialean sartuta egon behar dira, eta haren modalitatea eta/edo diziplina Eusko Jaurlaritzaren modalitate eta diziplinen katalogoan aitortuta egon behar da.



Hipikaren kasuan, Oztopo Jauzien diziplinan, CSIO lehiaketak soilik hartuko dira kontuan (ez CSI).

Surfaren kasuan, World Surf Leagueko honako proba hauek ere nazioarteko probatzat hartuko dira:

- a) Championship Tour.
- b) Challenger Series.
- c) Junior Tourra, baldin eta azken rankingeko lehen 5 postuetako bat lortzen bada.
- d) Qualifying Series, baldin eta QS 10.000ko lehen posizioak lortu badira ranking bidez parte hartuz, eta ez gonbidapen bidez.

2. Espainiako Txapelketan parte hartzea, emaitza hauetakoren bat lortuz:

- a) Lehenengo, bigarren edo hirugarren postua proba olinpikoetako banakako Espainiako txapelketan.
- b) Lehenengo edo bigarren postua proba ez-olimpikoetako banakako Espainiako txapelketan.

Klub edo taldeka lortutako postuak ez dira baliozkoak izango, bakarrean konpetitzen den diziplinetan.

Ez dira kontuan hartuko txapelketari berari erantsitako sailkapenak, non barneko sailkapenak egiten diren adinaren edo jaiotze-urtearen arabera.

Gimnastika erritmikoan, lehenengo kategorian lortutako emaitzak bakarrik hartuko dira kontuan, baldin eta banaka eta/edo batera parte hartzen bada.

- c) Autonomietako selekzioen arteko Espainiako txapelketan lehen postua lortzea (soilik taldeka lehiatzen diren diziplinen kasuan).
- d) Espainiako errekorra haustea.

3. Kontzentrazioetan edo Teknikifikazioetan parte hartzea, modalitateko Espainiako selekzioarekin:

Espainiako Selekzioarekin egindako kontzentrazio edo teknikifikaziotzat joko da dagoen Espainiako federazioak egindako deialdi ofiziala, non autonomia-erkidego ezberdinetako kirolariek parte hartzen duten. Ez dira kontuan hartuko sektore-kontzentrazioetarako deialdiak.

4. Euskal pilotaren modalitatean, profesionalaren aurreko kontratua izatea.
5. Banku finkoko arraun-modalitatean, beharrezkoa izango da:
 - a) Espainiako txapelketan lehen postua lortu izana: batelak eta trainerillak.
 - b) Liga Gorenean (Traineruak) txapelduna izatea; betiere, kirolari eskatzaileak ligako estropaden %50ean gutxienez arraun egin badu.

B) *Etorkizun Handiko Kirolaritzat Hartzeko Hautagaitzat hartzeko*

- a) Nazioarteko lehiaketan parte hartzea, dagokion nazioarteko federazioaren egutegian sartuta dagoena eta Etorkizun handikoen merezimenduetan jasotzen ez dena.
- b) Espainiako modalitateko selekzioarekin kontzentrazioetan edo teknikifikazioetan parte hartzea, baldin eta Etorkizun Handikoen merezimenduetan jasotzen ez bada.
- c) Bere adinari edo goragokoari dagokion estatuko maila goreneko lehiaketa erregularrean parte hartzen duen talde bateko kide izatea.
- d) Banku finkoko arraun modalitatean:
 - 1) Traineruak: Espainiako txapelketan lehen, bigarren edo hirugarren postua lortzea edo maila goreneko Ligan parte hartu izana, betiere ligako estropaden %50ean arraun egin bada.
 - 2) Batelak eta trainerillak: Espainiako txapelketan bigarren edo hirugarren postua lortzea.



2026an Etorkizun Handiko Kirolarien, Holakotzat Jotzeko Hautagaien eta izendapen hori jaso ez duten kirolarien zerrenda, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari proposatuko zaio Kirol Zerbitzuaren txosten bidez, behin betiko ebazpena eman dezan.

7. oinarria. — Aholkularitza

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, horretarako, foru webgunea erabili ahal da:

— <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKirolak>

8. oinarria. — Ebazpena

1. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea bi (2) hilabetekoa izango da, eskabi-deak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatuta.

2. Ebazpena Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak txostena egin ondoren. Oinarri honen 1. puntuan ezarritako bi (2) hilabeteko epea igarota berariazko ebazpenik eta jakinarazpenik ez badago, ezetsizat joko da, gerora esanbidez ebazteari kalterik egin gabe.

3. Ebazpenaren foru agindua eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Posta ziurtatu bidez ere komunikatuko zaie eta, hala dagokionean, egoitzan agertzeko sistemaren bidez.

Jakinarazpen horretan berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio bidea amaitzen duela eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzenduta, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete bat (1) igaro baino lehen, edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela, era berean zenbatutako bi (2) hilabete igaro baino lehen.

9. oinarria. — Denbora-eremua

Kirolari izaera edozein kategoriatan aitortu ondoren, izendapenak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta 2026ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

10. oinarria. — Aitorpenaren onurak

Bizkaiko Foru Aldundiaren aitorpena jaso duten kirolariek (Etorkizun Handiko Kirolaria zein Etorkizun Handiko Kirolaritzat Jotzeko Hautagaia) programa batean sartuko dira eta, ondoren aipatuko diren onurak izango dituzte, beren kategoriaren arabera:

1. Errendimendua hobetzeko entrenamendu fisikoei buruzko aholkularitza, orientazioa eta jarraipena. Honako hauek izango dira:
 - Kirolariei eta haien inguruneari aholkuak eta orientabideak ematea.
 - Aholkularitza eta orientazio ergo-nutrizionala.
 - Kirol-teknikariekin elkarlana entrenamenduaren plangintzan eta egoera fisikoko programen diseinuan eta jarraipenean.
 - Entrenamendu-planen eta lehiaketan jarraipena eta “feedbacka”, banan-banan.
 - Egoera fisikoko programak garatzeko eta gauzatzeko beharrezko materiala eta espazioa lagatzea.
 - Egoera fisikoko programen tutoretza presentziala.
 - Kirolarien eta haien teknikarien entrenamendu-sistemak dokumentatzeko beharrezkoak diren bitartekoak ematea.
 - Testak eta analitikak interpretatzea.
 - Prestakuntza akademiko eta/edo profesionalerako orientazioa.
2. Kirol zerbitzu medikuak planifikatu eta kudeatzeko aholkularitza.



Onuren denborazko iraupena 2026ko abenduaren 31ra arte izango da, luzapena egon litekeelarik hurrengo deialdiaren arabera osatutako zerrenda onartu arte.

Etorkizun Handiko Kirolaritzat jotzearen aitorpena edo holakotzat jotzeko hautagaien aitorpena galduko du onuradunak emateko ontzat hartu ziren baldintzak galtzen baditu. Kasua heldu ezker, Kirol Zerbitzuko proposamena bitarte, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru agindu baten bidez erabakiko litzateke aitorpena galtzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Kirol Zerbitzuaren bidez, aipatutako onurez nor jabetu den jarraipena egingo du, sexuaren arabera bereizturiko datuak erabiliz.

11. oinarria. — Betebeharrak

Bizkaiko Foru Aldundiak Etorkizun Handiko Kirolaritzat jo dituen pertsonen edo holakotzat jotzeko hautagaiek konpromisoa hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiari baime-na emateko beren irudia erabil dezan, aitorpena indarrean dagoen bitartean. Inolako mugarik gabe erabili ahal izango du eta kirolariak ez du izango ordainsaririk jasotzeko eskubiderik. Bizkaiko Foru Aldundiak irudi hori era egokian erabiliko duela bermatzen du.

Era berean, pertsona horiek konpromisoa hartzen dute beren datuak Eusko Jaurlaritzako dagokion organoari lagatzeko, errendimendu altuko parekatuaren ziurtagiriak eman ditzan.

Etorkizun Handiko Kirolaritzat jo dituen pertsonen edo holakotzat jotzeko hautagaiek konpromisoa hartzen dute, aitorpena indarrean dagoen bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituen sustapen-jardueretara joateko, hala eskatzen zaienean.

Halaber, pertsona horiek 2026ko otsailaren 23a arte (egun hori barne) aurkeztu beharko dute Etorkizun Handiko Kirolaritzat edo Holakotzat Jotzeko Hautagaitzat hartua izateko merituei dagokien modalitateko 2025. urteko edo 2025/2026 denboraldiko kasuan kasuko Bizkaiko federazioaren bitartez izapidetutako federazio lizentziaren kopia Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuan.

Artikulu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira Etorkizun Handiko Kirolari izaera edo Holakotzat Jotzeko Hautagai izaera galdu egingo da, ondorio guztietarako, eta, zehazki, foru dekretu honen 10. oinarrian ezarritako onurak galduko dira.

12. oinarria. — Datu pertsonalen babesa

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordezkari aplikatu beharreko gainerako araudia.